

ERASMUS ATENAS WEST ATTICA

Nik dakidala, 2023-2024 kurtsoko lehenengo lauhilekoan Arabako Ingenieritza kanpusetik Atenasera Erasmus+ mobilitate modura joan den ikasle bakarra izan naiz. Hortaz, modu laburrean azalduko dut nire esperientzia Greziako West Attica unibertsitatean laugarren mailako Ingenieritza Mekanikoa ikasten.

UNIBERTSITATEA:

Lehenik eta behin, unibertsitatea ez dago Atenasen bertan. Egia esanda, mugakide den Egaleo (edo *Aigaleo*) aldean dago. Atenaseko unibertsitate handienetakoa da. Bi kanpusek osatzen dute: lehenengoa eta bigarrena. Ez daude gertu, eta bus publiko batek lotzen ditu. Zein kanpusetara joan ikasketen arabera izango da; hala ere, nahiz eta gradu bakuna ikasi (ez gradu bikoitza), gerta daiteke bi kanpusetan izatea eskolak irakasgaien aukeraketa dela eta.

Nire gelako ikaskide guztiak soilik lehenengo lauhilekoa pasatu genuen Atenasen. Hala eta guztiz ere, nahi izanez gero, aukera izango nuen kurtso osoa han emateko. Bestalde, GrALA han bertan egiteko aukera ere bazegoen arazorik gabe.

Hizkuntzari dagokionez, jakiteko ingelesez zein ikasgai irakasten diren, PDF bat eskaintzen du unibertsitateak kurtsoa hasi aurretik. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da lau hilabete bereko ikasgaiak aukeratzen saiatu behar dela, horrela ordutegiekin arazorik ez izateko. Gainera, nik hautatutako ikasgai bat irakasten ez zela esan zidaten, eta beste bat hartu behar izan nuen hautatutakoaren ordean.

Komunikazioa unibertsitatearekin oso ona da. Stefanos, Ingenieritza Mekanikoko Erasmus kontuen arduraduna, adeitsua eta serioa da; nahiz eta komunikazioa bi unibertsitateekin batzuetan neketsua izan daitekeen.

Kontuan hartu beharreko beste gai garrantzitsu bat egutegia da. Izan ere, nahiko berandu hasten da kurtsoa (urriak 10, nire kasuan urriak 17). Horrek EHUra bueltatzean ikasturtea berandu hastea eragin dezake (nire kasuan, otsailaren 16an sinatu nuen Certificate of Attendance). Era berean, bi lauhilekoak ematen badira WAN, udako oporrak beranduago helduko dira.

HIRIA:

Atenas Greziako hiriburua da. Krisi ekonomiko handiak jota egon da luzaroan. Hori oso nabarmena da eguneroko bizitzan: hirigunetik apur bat urrunduta, arloteak eta drogazaleak ikustea oso ohikoa da. Gainera, kaleak ez daude garbi.

Badaude saihestu beharreko auzoak (Menidi, Acharnes y Zefyri) edota Omonia eta Metaxourgeio guneak, gauez batez ere. Niri ez zait ezer gertatu, baina kontuz ibili behar da. Argiztapena oso txarra da. Gainera, Uber erabili daiteke etxera bueltatzeko (merkeak dira eta partekatuz asko murrizten da gastua). Hala eta guztiz ere, badaude alde batzuk non gau-giro handia dagoen.

Prezioen aldetik, orokorrean hemengo bizimodua baino merkeagoa da. Hala ere, badaude zenbait produktu/zerbitzu garestiagoak; esate baterako, alkohola. Garraio publikoa erabiltzeko txartel bat dago, eta prezio arruntaren erdia ordaintzen dute ikasleek (13,5 euro hileroko eta gutxiago hilabete gehiago kontratatuz gero).

Ostatuei dagokienez, zenbait aukera daude. Enpresa handi bat dago (Errathens), pisu asko dituen. Egia esanda, alokatzen dena logela bat da. Pisu horiek askotan 5 edo 6 logela dituzte. Prezioa 350-380 euro inguru da gelako. Beste aukera bat ikasle-egoitza da. Nik dakidala, bakarria dago eta logela gutxi ditu; hala eta guztiz ere, hori egon eta ezagutu dudana jendea gustura egon da. Beste aukera batzuk daude; esaterako, Spotahome, HousingAnywhere edota Xr.gr web-orrialdeak erabiltzea. Horietan hainbat aukera daude: greko baten etxean bizi, pisu oso bat alokatu lagunekin, estudio bat alokatu,... Xr.gr orrialdean, prezioak normalean merketxoagoak dira; izan ere, bertakoek erabiltzen duten plataforma da. Azken plataforma horretan arazoak izan ditzakegu, askotan bertako hizkuntza baino ez dute ulertzen eta.

Azkenik eguneroko bizimoduan garrantzia duten ezaugarrei buruz aipamen batzuk egingo ditut. Atenasen eguraldia epela da eta lehenago iluntzen du. Erosketak egiteko orduan, supermerkatu merkeena Lidl da, baina badaude beste aukera batzuk (Sklavenitis edota Alfa Beta), eta bertako askok Atenaseko Merkatu Zentralean erosten dituzte produktu freskoak. Joan-etorriak egiteko bertako aireportuak nahiko lotura ditu (Bilborekin zuzeneko hegaldia ere, zenbait sasoitan).